



AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARIOEDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ETA GIZARTERATZEKO EUSKAL SISTEMAREN LEGE AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEN DIONA

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak ezartzen du zer prozedurari lotu beharko zaion Eusko Jaurlaritzaren jarduerara, izaera orokorreko xedapen orokorrak egiteko, hain zuzen, edozein gairen gainekoak izanik ere, antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten xedapenak eta lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen dutenak.

Aipatutako legearen 4.1. artikulua ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dela, eta lege beraren 5. artikulua, bestalde, zer eduki jaso beharko dituen prozedura hasteko agindu horrek.

Azaldutako guztia ikusita, Agindu honen bidez betetzen da 4.1 eta 5. artikuluek eta aurrekoek agintzen dutena.

Era berean, aintzat hartu behar da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan xedatzen dena, hor ezartzen baitira legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala ongi arautzeko printzipioak.

Arauaren xedea eta helburua.

Azken urteotan, diru-sarrerak bermatzeko eta gizartean zein lan-munduan txertatzeko ezarritako neurrien eraginkortasuna erasanda gertatu da bi krisi sakon direla medio, 2008koa eta COVID-19ren ondoriozko egungo krisia. Bi krisi horiek eragin nabarmena izan dute herritarren gizarte- eta lan-baldintzetan eta ondorio kaltegarriak ekarri dituzte pobrezia eta gizarte-bazterketa eragin dituzten neurrian.

Hala, iraupen luzeko langabeziaren ondorioei, hainbat migratzailearen baliabide faltari, emakumezkoek pairatzen duten bazterketa-arriskuari eta pentsiodun batzuen baliabide ekonomiko eskasiari, enplegu modu prekarioenetatik eratorri diren hainbat egoera gehitu behar zaizkie, eta, horien guztien ondorioz, nabarmen hazi da babes premian dauden pertsona kopurua.

Arazo horiei guztiei gehitzera datoz egun indarrean dagoen araudiaren mugak eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren agerpena, Gizarte Segurantzaren prestazio berri horren helburuek –zeinaren kudeaketa osoa, aurreikuspenen arabera, EAeri transferituko zaion– partzialki bat egiten baitute Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren helburuekin.

Esku artean dugun legegintza-ekimenaren helburua da Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema normalizatzea, Euskadiko ongizate-eredu orokorraren parte gisa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren unibertsalizazioan sakonduz eta gaur egun behar beste estaldurarik ez duten biztanleria-segmentu jakin batzuetara iritsiz, bereziki nabarmendurik

beren kargura seme-alabak dituzten familia behartsuak, eta, aldi berean, sistema espezifiko bat ezarriz onuradun pentsiodunentzat.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eredua indartu nahi da, diru-sarrerak bermatuak izateko eta gizarteratzeko eskubide bikoitzaren ikuspegitik, eta, aldi berean, errenta hori jasotzen duten pertsonen –lanerako gauza diren neurrian– jarduera ekonomikoa, gizarteratzea eta laneratzea sustatu nahi dira.

Hori guztia ebaluazioan eta ezagutzan oinarritutako berrikuntzak ezartzearen ikuspegitik egin nahi da, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema europar esparruko gizarte-politiken abangoardian mantentzea ahalbidetu dezaten.

Azaldutako guztia bateratzeko xedez, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legea egitearen helburua honako hau izango da:

- a) Bi prestazioen –Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera– kudeaketa koordinatuari ekitea.
- b) Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Errentaren hartzaileentzat –edo potentzialki hartzaile izan daitezkeenentzat– konplexuegiak gertatzen diren prozedurak berrikustea eta sinplifikatzea, pertsonen behar aldakorretara ahalik eta azkarren egokitzearen. Marko horretan, behar-beharrezkoa gertatzen da eskatzaileek baldintza jakin batzuk betetzen dituztela egiaztatzearekin lotura duten zailtasunei lehenbailehen ekitea (adibidez, bizikidetzaren unitatearen osieran eragina dutenei, eskatzailearen baliabide ekonomikoak eta ondare-mugak zehazteko orduan sortzen direnei, bai eta prestazioen onuradunen benetako bizilekuarekin eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko mugikortasun geografikoa erabakitzearekin lotutako beste hainbat zailtasuni ere).
- c) Enplegua estimulatzeko sistema birplanteatzea, diru-sarrerak bermatzeko EAEko ereduaren mekanismo esanguratsu eta eraginkorrenetako bat baita, laneratzeko zailtasun handienei aurre egiteari begira.
- d) Gizarte Larrialdietarako Laguntzek biztanleria ekonomikoki babesteko eredu orokorraren barruan jokatzeko duten rola birdefinitzea, helburua izanik etxebizitzari eta gizarte-zerbitzuei buruzko EAEko legeriak ekarri dituen aldaketetara eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarrietan eta Alokairu kontzeptuko Gizarte Larrialdietako Laguntzetan dituzten ondorioetara egokitzea.

Azaldutako guztiagatik, esku artean dugun ekimenak honako gai hauei helduko die:

- 1) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema eguneratzea, sistema autonomo gisa: osotasun koherente bat eratuko du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatzen dituen prestazio guztiak integraturik dituela eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzek osatzen dutela. Azken horiek ez dira aldizkako prestazioak izango, baizik eta dirulaguntzak.
- 2) Testuinguru sozioekonomikotik sortutako beharrianetarako neurri eta konponbide espezifikoak inplementatzea, eta, bereziki, lan-merkatuan sartzeko eta gizarteratzeko aukerak sustatzera eta hobetzera bideratutako haiek.



- 3) Herritarrengandik hurbilago dagoen sistema bat ezartzea, araudia bakuntzearen bidez.
- 4) Eskainitako prestazioen estaldura hobetzea, hala hartzaileen ikuspegitik, nola zenbatekoak finkatzeko erabiltzen diren mekanismoen aldetik, izan ere, hainbat espezifikotasun hartzen baita kontuan: seme-alabak dituzten familien babes, guraso bakarreko unitate izatea, mendekotasuna, etab.
- 5) EAEko familien konposizio desberdinak aintzat hartzea, eta aldi batez arreta beharko duten salbuespenezko egoerak identifikatzea.
- 6) Pentsiodunen espezifikotasunari arreta eskaintzea.
- 7) Prestazioen kudeaketaren hobekuntzan aurrera egitea, prestazio eta laguntza ekonomikoen izapideetan eta haien kontrolean eta zorrotasunean zaluago jokatzuz, kudeaketa sinplifikatuz –izapideak telematikoki erraztearen bitartez–, elkar eragingarritasuna sustatuz, pertsonen identifikazioan hobekuntzak eginez eta sistemaren jasangarritasun ekonomikoari eutsiz (zenbatekoak eta kasu bakoitzerako kalkulu-formulak eguneratzearen bidez).
- 8) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema osatzen duten prestazioen zereginak mugatzea. Bereziki, Gizarte Larrialdietarako Laguntzenak.
- 9) Gizarteratzeko Euskal Sistemaren eta gizarte- eta enplegu-zerbitzuen koordinazioa sendotzea.

Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 9. artikulua ezartzen duenez, oro har, EAEko botere publikoek, beren eskumeneren esparruan, norbanakoaren eta hura txertatzen den taldeen askatasuna eta berdintasuna eraginkorrek eta benetakoak izatera zuzenduko diren baldintzak sustatzeko eta oztupoak kentzeko neurriak hartuko dituzte. Gainera, 10. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio gizarte-laguntzaren arloko eskumen eskusiboa, Konstituzioko 148.1.20 artikulua arabera.

Eskumen hori egikaritzean, eta XII. legegintzaldiko 11. konpromisoa betetzeko xedearekin («Bazterkeriaren aurkako diru-sarrerak bermatzeko sistema garatzea eta hobetzea»), iritzi izan zaio egokia eta bidezkoa dela Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Lege-aurreproiektua egitea.

Proiektua egin eta izapidetzeko, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean jasotakoari heldu behar zaio. Abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 4. artikulua lehen apartatuak honako hau xedatzen du: «*Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da*».

Lan eta Enplegu Sailaren eskumena da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 6. artikulua indarrez.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuak xedatzen du Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzari dagokiola, Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren bitartez, araudi-proposamenak egitea, hurrengo arlo hauetan: Enplegua, Prestakuntza, Diru-sarreraren Bermea eta Gizarteratzea.

Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak.

Eskubide Sozialen Gutuna da, diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloan, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen esparru juridikoa eratzen duen oinarria. Gutun hori garatzeko, orain prozedura hasten duen arau hau egin baino lehenago, EAEko Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea onartu zen, zeina, gerora, azaroaren 24ko 4/2011 Legearen eta hura garatzeko araudiaren bidez aldatuko baitzen.

Aztergai dugun arau-testua onartuz, indargabetuta geratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea, aldatu egin baitzuen gero azaroaren 24ko 4/2011 Legeak.

Hurrengo arau hauek aplikatuko dira, baldin eta etorkizuneko legean xedatzen denari kontra egiten ez badiote eta geroko xedapenen bidez aldatzen ez badira:

- 4/2011 Legea, azaroaren 24koa, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzen duena.
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena, 18/2008 Legeari esker onartutako etxebizitza-prestazio osagarria ezabatzen duena
- 2/2010 Dekretua, urtarrilaren 12koa, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzkoa
- 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa.
 - 16/2017 Dekretua, urtarrilaren 17koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena.
 - 85/2018 Dekretua, ekainaren 5koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.
- 2001eko otsailaren 14ko Agindua (EHAA zk.: 37/2001), enplegurako estimuluak ezartzen dituen

Ekonomia- eta aurrekontu-eragina.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, zeinak etorkizuneko araua aplikatzearen ondoriozko kostua aztertuko baitu, bai eta arauaren aplikazioak EAEko aurrekontu orokorretan izango duen eragina ere, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42.1 artikuluan aurreikusitako edukiari jarraikiz.

Egoki irizten zaien izapideak eta txostenak.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen arabera, hasierako aginduan adieraziko da zein diren izapide eta txosten egokiak, arautuko den gaia zein den kontuan hartuta.



Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 95. artikulua arabera, Gizarteratzeko Erakundearteko Batzordeari dagokio legea garatuko duten arauak prestatzeko, aplikatzeko eta, behar izanez gero, berrikusteko erabiliko diren irizpideak proposatzea. Horri buruz, esan behar da aipatutako Batzordeak 2021eko otsailaren 18ko saioan onetsi zituela legeak aipatzen dituen irizpide horiek.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren aplikazioari buruzko Jarraibideak onartzen dituen 2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiarekin bat etorririk, ulertuko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatzen dena (*Herritarren parte-hartzea lege-lerruneko arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran*) estalita dagoela hasierako fasean, zeina Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluetan arautzen baita. Herritarrekin elkar eragiteko izapide bat da, eta testu juridiko arauemaile jakin bat onartu aurretik gauzatu behar da.

Izapidea honela bete da: iragarki bat ipini da EAEko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-oholean. Era berean, aurretiazko kontsultaren izapide honetan argitaratutako informazioa gobernuaren plataforma irekita –Irekia– eraman da. Bertan, herritarrek Administrazioaren jardueren berri izan dute, eta beren iritzia eman dituzte, 2021eko urtarrilaren 22tik 2021eko otsailaren 19ra bitarteko aldiaren.

Legegunean ere ikusgai dago informazio hori bera. Jasotako ekarpenak banaka edo multzoka txertatuko dira esandako arauaren testura.

Espedienteak, aipatutako memoria ekonomikoaz gainera, arauaren premiazkotasunari, egokitasunari eta helburuei buruzko justifikazio-memoria ere hartuko du barnean.

Halaber, memorian jasota egon beharko da enpresetan duen eraginari buruzko ebaluazioa, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarrita dagoen moduan.

Era berean, espedientera gehitu beharko da genero-eraginari buruzko txostena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren 2.1) Lehen Gidalerroan xedatutakoaren arabera. Horren bitartez xedatzen da argitara eman dadila Gobernu Kontseiluaren erabakia, «genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzekoa».

Aldez aurreko onarpenaren agindua, eta, harekin batera, araugintza-proiektua, Legesarea lankidetzaz-esparruan emango dira argitara (2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren 1.2 apartatuta).

Lege-aurreproiektua aurretiaz onartu ondoren, testua Eusko Legebiltzarrera igorri beharko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1. artikulua aplikatuz. 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazkuntzan, honako hau eskatzen da: «*Jaurlaritzak, Aholku Batzorde Juridikoari igorri behar zaizkion lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak egiteko hasierako fasean, xedapenaren testua bakarrik igorriko dio Eusko Legebiltzarrari, behin prozedura hasteko agindua eman duen organoaren aldez aurreko onspena izanda*».

Aurreproiektua entzunaldi izapidearen eta jendaurreko informazioaren pean jarriko da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hau bete egiteko, izapidearen iragarkia argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen parte-hartze eta kontsulta izapidea ere gauzatuko da, abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 9. artikuluan ezarritakoa betetzeko. Horretarako, proiektua toki-administrazioa (EUDELen bitartez) eta foru-administrazioa (lurralde historikoetako hiru aldundietara, alegia) bidaliko da, kontuan hartuta, betiere, esandako administrazio horiek hainbat jarduera gauzatzen dituztela enplegu- eta gizarteratze-politika aktiboen arloan.

Era berean, kontsulta egingo zaie, halaber, proposatutako araudiak uki ditzakeen Eusko Jaurlaritzako sailei eta erakunde instituzionalei.

Espedienteari prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko zaio, aurrekariak, egindako izapideak eta haien emaitza adieraziz, bai eta proiektuaren testuan egindako aldaketak ere, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2 artikuluan zehazten denaren arabera.

Arauren gaia eta edukia kontuan hartuta, hurrengo izapideok gauzatu eta txosten hauek eskatu beharko dira:

- Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzuen Zuzendaritzaren txosten juridikoa, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, arauak izango duen genero-eraginaren ebaluazioari buruz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizatzeari buruzko ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren txostena, aipatutako Mahaia eratu eta arautzeko abenduaren 11ko 283/2012 Dekretuaren 7.1.c) artikuluan xedatutakoaren indarrez. Adierazi behar da, aipatutako Mahai horren bidez, bazterkeriaren aurkako borrokan parte hartzen duten sektoreek parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izango dutela, hirugarren sektoreko kontsulta- eta partaidetza-organo gorena den heinean, EAEko Administrazio Orokorren esparruan.
- Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren txostena, hain zuzen ere, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeko 98.1.b) artikuluan zehaztutakoan oinarriturik.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzaren Herritarrekiko Arreta eta Zerbitzu Digitalen txostena, aipatutako

- sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 08/2021 Dekretuaren 12.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Halaber, egoki eta bidezkoa irizten zaio Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena eskatzeari, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean izendatzen zaizkion eskumenei jarraikiz.
 - Kontsulta proposatutako arauak eragin diezaiekeen Eusko Jaurlaritzako sailei eta erakunde instituzionaleri.
 - Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeko 91.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluan aurreikusitakoaren indarrez.
 - Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren arau- eta ekonomia-kontrolako nahitaezko txostena, 2/2017 Legegintzako Dekretuak, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak, EAEko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituenak, ezarritakoari jarraikiz.
 - Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluan xedatutakoaren indarrez. Marko horretan, eta, Jaurlaritzaren Legearen 56.2. artikulua xedatutakoa betez, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazkeraren arabera, *«Aholku Batzorde Juridikora bidaliko den dokumentazio bera, aldi berean, Legebiltzarrerara bidaliko da, Legebiltzarreko taldeek horren berri izan dezaten»*.

Era berean, adierazi behar da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako prestatze-prozesuko dokumentuen gardentasun- eta publikotasun-printzipioa beteko dela, horretarako gaitutako «Legegunea» tresnaren bitartez.

Europar Batasunaren aurreko izapideak.

Ez da ikusten Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egin beharrik.

Idazketa-sistema.

Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) itzultzea izango da Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 8.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko erabiliko den sistema, hala xedatzen baitu apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuak, zeinaren bidez zentralizatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren mendeko Erakunde Autonomoetako itzulpen-zerbitzuak.

Horregatik, eta azaldutako aurrekari guztiak oinarri hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenik. - Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Lege-aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematea.

Bigarren. - Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza izendatzea lehen aipatutako prozedura izapidetzeaz arduratuko den organo gisa.

Hirugarren. - «Legesarea» izeneko lankidetzagunean ematea Agindu honen berri, xedapen orokorrak tramitatzeko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoa betetzeko. Horrez gainera, «Legegunea» izeneko espazioan ere ezagutzera ematea.

Laugarren. - Araua egiteko eta haren egokitasuna eta legezkontasuna ziurtatzeko azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea.

Vitoria-Gasteiz,

Bigarren lehendakariordea eta Lan eta Enplegu Saileko sailburuordea